

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 214. zkia. 2013ko uztaila



Santixauei tira eginez



IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo doktorea

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

Ainhoa Zulueta doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

Susana Sierra doktorea

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

Maitane G. Iñiguez doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPIEDIATRIA

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera

08.00 - 22.00


Zapatuetan

10.00 - 14.00

IRAZABAL HORTZ-KLINIKA

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Leire Elustondo, Estibalitz González, Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Amaia Arriaga,
Antonio Hernández 'Cuco',
Fede Iturriagagoitia,
Patxi López, Ivan Mesonero,
Pello Mugarza eta Valentín Mugarza.

ARGAZKIAK:

Antxitxiketan, Igone Amesti,
Artarrai Mendi Taldea, Ibaia Azagirre, Ermuko Udala,
Gazte Asanblada, Estibalitz González, Valentín Mugarza,
Hiart Redondo, Ane Saénz,
Udal Liburutegia eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.360 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

GARDANTZILOA Jilguero. *Carduelis carduelis*



Hegazti kantoreen artean, estimatuenetakoa da bere erregistro bizi eta ederren erruz. Kanturako hazteko harrapatzen zaizkio kumeak eta eginbeharrekoak apurka-apurka egin ere: nire akorduz, kaiola baten sartzen ziren eta hartutako zuhaitz-adarraren ondoko beste arbola batera mugitu. Gurasoek jaten ematen jarraitzen zuten preso zuten txori-aldrari. Pare bat egunetara, kaiola eta barrukook beste zuhaitz-tantaren batera eramatea zen gauza; egun batzuetara, norberaren etxetik gertuagoko batera, balkoian amaitzeko arbolaz arbolako ibilbidea. Etxeko apopilo

berriek ze jateko gustukoen? Kardoak, landara ugaria bazterretan eta batez ere trenbide inguruan. Lehen-lehen bikote larregi ez bazebiltzan ere, urrituz joan dira; parajeotan ikustekotan, Mallabian edonon eta Ermuan Abeletxen edo Betiendon.

Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4	BOTEPRONTOA17
Kely Caetana Magalhaes, Brasil	Maribel López
ELKARRIZKETA5-7	IRITZIA18
Antxitxiketan aisialdi taldea	Eta kitto...
MALLABIAN ZER?8-9	SALEROSKETAK19
Ruben Rivero	Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN10	ANTZINAKOAK.....20
IGO kanpainaren balorazioa	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
SANTIXAUAK11-14	KALEKO INKESTA21
ERMUAN ZER?15-16	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
Gazte Eguna eta Iker Elustondo	AGENDA22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Kelvy Caetana Magalhaes

Kelvy Caetana Magalhaes de Souza 27 urteko brasildarra da. Iparraldean kokatzen den Boa Vista herritik, Roraima estatuko hiriburutik, etorri zen duela sei bat urte. Eibarko Unibertsitatean Administrazio eta Finantzak eta Nazio Arteko Merkataritza ikasi du. Orain, gazte asko bezala, lan bila dabil.

- Nolakoa da Boa Vista?

Roraima estatuko hiriburua da, Ermua baino askoz handiagoa. Han eraikin guxti dago, gehienak etxetxoak dira.

- Zer egiten zenuen han?

Unibertsitaterako sarbidea prestatzen ari nintzen, han karrera jakin baterako prestatzen duzu sarbidea, ni Zuzenbiderako sarbidea prestatzen ari nintzen. Bitartean bideoklub batean egiten nuen lan.

- Nola etorri zinen Ermura?

Nere ama etorri zen lehenengo. Bere senarra dena ezagutu zuen eta hona etortzeko proposamena egin zidan. Nik hasieran ez nuen nahi, banuen etxetik alde egiteko gogoia baina ez hain urruti.

- Aldaketa erraza izan zen?

Ez, hona etorri baino lehen han sei hilabetez aritu nintzen gaztelania ikasten, hala ere, hasieran asko kostatzen zitzaidan jendearekin elkar ulertzea. Abuztuan etorri nintzen eta irailan Eibarko Unibertsitatean ikasten hasi nintzen.



- Lagunak egitea kostatu zitzaizun?

Ez, Unibertsitatean Ermuko lagun bat ezagutu nuen, bere koadrilara ekarri ninduen. Santixauetan izan zen hori, harrez gero beraiekin ibiltzen naiz.

- Hango lagunak lagatzea zaila izango zen...

Bai, hangoak txikitako lagunak dira baina harreman sendoa eraiki dugu eta betiko izango ditut. Maiz hitz egiten dut beraiekin, WhatsApp, Skipe eta Facebook bidez.

- Zer moduz euskararekin?

Ez dut ikasi, baina agurrak, eskerrak eta hitz solte batzuk ikasi ditut kuadrila artean.

- Zerk harritu zintuen hasieran?

Jendeak mesfidantza handia duela kanpotarrongan. Hori batez ere gazte-

lania ondo menperatzen ez nuenen igarri nuen.

- Gutxien gustatzen zaizuna?

Oso leku itxia dela Ermua, ez dago espazio zabalik.

- Eta gehien?

Oso leku lasaia dela eta oso gertu ditugula mendia eta hondartza.

- Zer irabazi duzu? Zer galdu?

Bizitza kalitatean irabazi dut. Askok hazi naiz pertsona eta emakume moduan. Gaztaroan migratzeak asko erakusten dizu. Galdu ere egin dut, hemen lan egiteko izan ditudan aukerak oso eskasak izan dira, egoera ekonomikoa zaila delako eta kanpotarra izateagatik.

- Bueltatzeko asmoa duzu?

Ikusita hemengo egoera, planteatzen hasi naiz.

Ane Sáenz

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Antxitxiketan aisialdi taldea:

“Gure erronka nagusia DBHko gazteak erakartzea da”

20. urteurrena beteko du Antxitxiketanek 2014an. Ibilbide luzea du atzetik eta etorkizunean bide horri jarraipena emateaz gain, bertako kideak desafio berriei aurre egiteko gogotsu daude. Aldaketak egin dituzte koordinazio taldean, lokal propioa izan nahiko lukete eta ekimen berrien artean, bazkalosteko tailerrak eta ‘gaztetxokoa’ sortu nahiko lituzkete. Gainera, udako denboraldia bukatu berria da eta horri ere, errepasotxo egin diogu.

- *Antxitxiketan taldeari astindutxo eman diozue aurten, ezta?*

Bai, koordinazioan aldaketa egon da. Arduradun bat egon beharrean, lan egin eta gauza berriak egiteko gogoia dugun taldea osatu dugu. Udalekuez gain, urtean zehar ere bestelako ekintzak antolatu nahiko genituzke.

- *Baduzue jada zerbait buruan?*

Bai, gauzatxo batzuk bai. Bazkalostean umeek eta gazteek ordubete inguru izaten dute libre, esaterako, eta tartetxo hori, euskaraz hitz egin dezaten aprobe txatu nahiko genuke. Asteburuetan mendi irteerak egin nahiko genituzke, 'gaztetxoko' moduko lokalen bat izan, ludoteka irekia umeentzat, koadrilen arteko olinpiadak... Gauza asko!

- *Zenbat lagunek diharduzue koordinazio taldetxo horretan?*

10 ginen, baina erabakiak hartzeko asko ginela konturako ginen eta 4 edo 5 gabiltza orain. Ideiak denonak dira, baina garatu, taldetxo horretan garatzen dira.

- *Bide berri honetan kanpoko laguntzarik izan duzue?*

Bai, Euskal Birusak asko lagundu digu. Bestalde, taldeko koordinatzailea izan zen Ane Saénzekin harremana izaten jarraitu dugu eta asko animatu gaitu. Hasieran zalantzak genituen



Ongarai Eskolako ludoteka



Anaitasuna Ikastolako ludoteka



Gazte Ibiltariak

eta... Udalak, berriz, batzuetan lagundu eta beste batzuetan trabak baino ez dizkigu ipintzen: paper mordoia bete, lokalik ez...

- *Martxan jarri nahi dituzuen ekimen horiekin, zein adin tartetan eragin nahiko zenukete?*

Txikiekin bidea egina daukagu, erronka da DBHkoak erakartzea. Gero eta gazteago hasten dira edaten, lokaletan sartuta egoten dira... Berrizen edo Arrasaten adibidez, 'gaztetxokoak' dituzte, mahai-futbolekin, kartekin... Eta bertan bi edo hiru begirale egoten dira.

- *Lokal baten beharra sumatzen duzue?*

Bai, bilerak egiteko, gurasoekin biltzeko, materiala

gordetzeko, jendeak nora jo behar duen jakiteko, zerbait antolatu nahiko bagenu... Orain arte Lobianon egon gara, baina hor ordutegi bat dago eta ezin gara sartu behar dugun bakoitzean. Independentzia gehiago behar dugu.

- *Gurasoekin harreman handia duzue?*

Ez asko. Udalekue tarako izena ematea eta egitaraua jasotzea udaletxean egiten da, beraz, guk umeak ekarri eta jasotzen dituztenean ikusten ditugu bakarrik gurasoak. Hori ere aldatu nahi dugu. Aurten momentuz, asebetetze inkesta betearazi nahi diegu gurasoei, zerbait hobetu daitekeen, proposamenak egiteko...

- *Eta aldaketa hauen aurrean zein da Udalaren jarrera?*

Ba datorren urtean lehiketa publikoa egiteko asmoa du. Antxitxiketanek 20 urte beteko ditu datorren urte-

an. Egia esan, horrelako elkarte herrian izanda, bertako begiraleekin eta kanpora jotzea... pena litzateke. Baina egindako bideak antza ez dauka garrantzirik!

- *Aurtengo kanpaina bukatu berri dago. Zenbat ume izan dituzue?*

159 ume izan ditugu udalekue tan, 6 urtetik 12 urtera. Horiek 3 talde ezberdinetan banatuta egon dira, adinaren arabera. Txikienekin jolasak egin ditugu batez ere eta ertain eta nagusiekin bi gaueko irteera egin dugu. Ertainekin Zestoan dagoen Sastarrain aterpetxera joan gara eta nagusiekin Lizarrara. Urteak urtera leku ezberdinak aukeratzen saiatzen gara...

- *Aurten berrikuntzarik izan al da?*

Berrikuntzarik handiena 'Katxanba eguna' izan da, hiru taldeekin ospatu dugu.

- *Eta zer da 'Katxanba'?*

"Lokal baten beharra sumatzen dugu, aurrera egiteko independentzia gehiago behar baitugu"



Antxixiketean taldeak ez duela pertsonaiarik konturatu ginen. Logoa daukagu, baina ez du joko handirik ematen eta panpinen bat asmatu behar genuela pentsatu genuen, batez ere txikienekin jolasteko.

- **Abestia ere baduzue, ezta?**

Bai, kantatzea asko atsegin duten begirale bi daude taldean (Naiara Gallastegi eta Leire Elustondo) eta bilera batean, 5 minututan, letra sortu zuten. Musika Eskolan dauden beste gazte batzuk musika egin zuten, grabatu eta listo! Kanta eta dantza daukagu orain. Uda-ko 'hit'a izango da... Begirale batek jantzi zuen Katxanbaren mozorroa, goma

EVA eta fieltroz egin dagoena.

- **Eta zer egin zuten umeek egun horretan?**

Goizean Korrika antzerako bat egin genuen herriko kaleetan zehar. Arratsaldean, berriz, 'lip dub'a egin genuen. Hau da, umeak leku ezberdinetan grabatu genituen Katxanbaren abestia kantatzen eta gero abesti originala ipini dugu fondo moduan, play-backa izango zela pentsatu genuen, baina ez, oso ondo geratu da eta orain, nonbaiten ikusgai jarri nahi dugu, Ertzeko plaza-txoan edo...

- **Abestiari etekina atera diozue, orduan...**

Bai, umeei asko gustatu

"Katxanba eguna izan da aurtengo berrikuntza, asko gustatu zaie"

zaie, txikiei eta handiei. Koreografiatxoak ere arin ikasi dute!

- **Horrez gain ludoteka eta Gazte Ibiltariak ekimena abiatu dituzue aurtun, ezta?**

Bai, aurtun egin ditugu lehen aldiz. Ongarai Eskolan eta Anaitasuna Ikastolan izan dugu ludoteka 4 astez, 2 eta 6 urte bitarteko umeentzat. Bertan 3 begirale izan ditugu eta hauek praktiketako begiraleak izan dituzte laguntzaile. Ume kopurua aldatzen joan da, umeak asteka apuntatzeko aukera eman dugulako, baina ume gehien izan ditugun astean, 25 izan ditugu Anaitasuna Ikastolan eta Ongarain 10 bat ume.

- **Eta Gazte Ibiltarien ekimenean zer proposatzen zenuen?**

Bi proiektu aurkeztu genizkien DBHko ikasleei. 1. eta 2. mailakoei Oriotik Zaurtzera joateko aukera eman genien eta 3. eta 4. mailakoei Ermutik Lekeitiora, biak oinez egitekoak dira. Lekeitiokoa ezin izan dugu egin, ez delako jenderik

apuntatu baina bestean 18 neskek eman zuten izena. 3 eguneko irteera izan egin zuten eta primeran pasatu ere! Zarauzko ikastolako gimnasioan egin dute lo, ikastolen elkarteko ingeleseko udalekuekin batera. Getarian, kostata, Arratoia ikustera igo ziren, kalean afaldu eta gauean jai hawaiarra egin zuten hondartzan. Hona bueltan, tailekorrak egin zituzten ostegun eta ostiralean. Ostegunean itxura aldaketa (hennako tatuajeak, maskarak eta horrelakoak) eta ostiralean 'Urban Fest' egin genuen, hip-hop eta break dance dantzaria etorri zen eta gazteek graffitiak egiteko aukera izan zuten.

- **Kontua modernizatzen doa, beraz?**

Bai, bestela zaila da gazteak erakartzea. 3. eta 4. mailakoak, adibidez, ez dira apuntatu... Baina tira, lehen urtea da. Datorren urtean aurretik antolatuko dugu, beharbada datak aldatuta gehiago apuntatuko dira, ikusi behar!

Dorleta Vidal



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

ONTINDIA
HARATEGIA

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1 Tel. 943 10 85 44
 48260 - ERMUA Mug. 678 64 85 41

EGUZKILORE

Zubiaurre 14
 Telef. 943 17 28 88
 48260 ERMUA

Ruben Rivero, mendizalea:

“Lasterketien gehien maitte dittuzunek animatzen aukitzie, gauza handixe da”

Uztailan 12xen Beasainetik urten zan 88km-ko Goierriko ‘Bi Handiak’ mendi lasterketan parte hartu zeban 30 urteko gazte mallabitar honek.

- **Nondik datorkizu mendi zaletasune?**

Mendixen ibilttie beti gustau izen jata. Osabagaz umetan hasi nintzen perretxiko biler. Oin dala bi urte Artarrai Mendi Taldeko bazkide ein nintzen, ta bertako askok, baina batez be Javi, Eva eta Jonyk, mendixaiko duken grina eta zaletasune transmititu dostie. Holan, bazkide ein nintzenetik, ez naz gatu be ein!

- **Mendi martxak, lasterketak, mendi irteerak... apur bat danetik eitten dozu ezta?**

Bai, ein ahala eta ondo sentitzen nazen heinien, helburu zailauek lortzen saiatzen naz.

Apurke-apurke hasi nintzen mundu honetan. Ibilide motzak oinez lasai eitten, mendi martxak Artarraiko irteera lasaixekin uztartzen, gero Pirineuetan...

- **...ta mendixen korrike noz hasi zinen?**

Igezko uztaillien Alpietara juteko korrika eitten hasi nintzen entrenamendu moduen. Orduen konturatu nintzen gusture sentitzen nintzela eta entrenatu ahala sasoi hobie lortzen neuela.

- **Goierriko Bi Handiak izen da zure azken lasterketie. Zer ezaugarri dittu?**

Goierriko Bi Handiak Beasainen eitten dan mendi lasterketie da, Txindoki eta Aizkorri batzen dittuen proba. Lasterketie 88 kilometrukue da eta 6.000 metro positiboko desnibela deuke. Partaidiek gehie-



nez 22 ordu deukie ibilbidie amaitzeko. Ehunmila lasterketagaz batera eitten da.

- **Azken momentuko aldaketak be egon zien, ezta?**

Bai, ekaitzak ziela-eta, lasterketie ordubete atzeratu zeben gabeko hamabixetara. Antolakuntzak be, eguraldixe txarragaittik ibilbidie aldatu eban, Txindoki puntara ez igotzeko.

- **Nola prestatu dozu lasterketie?**

Asteburuetan hainbat mendi martxa luze eitten eta lasterketa ezberdinetan parte hartzen. Aste bittartien, barriz, Oiz eta Urko ingurutik korrike arritu naz.

- **Zelan ikusi eta sentitu zara proban?**

Emaitza eta einddeko den-

borak ikusitte espero nebana baino hobeto eiotela esan neike. Hau izen da desnibel horrekin orain arte ein doten lasterketarik luze eta gogorrena. Guztire 17 ordu eta 42 minutuen ein nittun 88 kilometruak. 28. kilometrora arte oso ondo sentitzen nintzen, baina hortik aurrera gorputz osue mintzen jun jatan; deshidratatzen neuela pentsatzen nebana. Inderrak batu eta errekueratzen jun nintzen apurke-apurke.

- **Lasterketatik zer ein jatzu gogorrena?**

Banekixen lasterketie gogorra zala, baina espero nebana baino gogorraue ein jatan; ein zeban beruek eta zeuen hezetasunek lasterketie bera zaildu eben. Gainera eindde-



Ferreteria/Burdindegi

ANBOTO

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



ko entrenamendu eta lasterketa gehienak euri eta lokatz artien ein dittuaz! Baina beno, eguraldixe ezin leike aldatu eta danera moldatu biga!

- Ta zer izen da politte-na?

Ibilbidie bera oso politte da eta hainbeste sufridu ondoren metara heltzie be oso hunkigarrixe eta ahaztezine da. Honetaz gain, lasterketie ein bittartien gehien maitte dittuzunek animatzen eukitzie, gauza handixe da; emozionau ein nintzen eta ondo sentiarazten lagundu nindduen. Aizkorrire heltzeko azken metruetan zain nittun nire

bikote, honen familia, Mallabiko lagunek eta lankidiek. Urbian barriz, ermua-rrak eta azken abituailamientuen nire guraso eta arreba egon zien. Eskerrik asko denoi!

- Aurrera begira zer asmo dozu?

Entrenatzen eta lasterketa ezberdinek eitteko asmue dekot. Abuztuen Atlas marrokiko Toufkal mendixe eittekotan nao. Eta datorren urtien, gorputzek erantzuten badau eta lesinorik ez badekot, 'Hiru Handiak' lasterketan parte hartzeko asmue dekot.

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre

III BERDINTASUN PLANA

Prest dauke Udalak III Berdintasun Plana. Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak baztertuz parekotasune bultzatu nahi da plan honen bidez. Horretarako herriko elkarte eta eragile desberdinek parte hartu dabe. Iraileko Ohiko Bilkuran onartuko da.

ORTU EKOLOGIKOAK

MOEEagaz (Mallabiko Ortu Ekologikoen Elkarte) hitzarmena sinatetzekotan dago Udala. Hasieran 13 eralbiltzaile zittuen elkartiek eta oin, bigarren izen-emote deialdixan ostien, beste hiru partzela banatu die.

LONGABURUKO PAGO-EGURRE

Longaburu menditik erabilera propixorako pago-egurre lortzeko aukera emon da aurten be. Egurra eskuratzeko lan guztiek, moztu, garraiatu, jaso eta abar interesdunan konture izango diela jakinarazi dau Udalak.

Postal behiaketa

ZER SARTUKO DA:
Postalaren eta testuaren orijinaltasuna. Bakoitzak nahi beste postal bidali dezake. Postala euskaraz idatzia izan behar da.

NOIZ ETA NOLA BIDALI:
Postal zerbitzu arruntz bidali behar da. Postala jasotzeko epea irailaren 29an azken eguna.

POSTALA BIDALI BEHAR DA.
Herriko taberna
Askalde 3
48269 Mallabia
Bizkaia
Euskal Herria

SARIA.
100 EURO

Antolatzailea: Izar Gorri Kultur ELkartea

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**MALLABIKO
Herriko
taberna**

Eguneko platera (3€)
menua, bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

**EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIA**

ETXERA

943 174 952
(asteartetan itzita)

SEHIGA

LAN-BABESA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**OUTUMURO
Kafetegia**

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

OINAK

**LEIRE MAYORA
PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

**ERMUAN KANTUAN,
UZTAILAREN 27AN**

Uda aurreko azken Ermuan Kantuan uztailearen 27an burutuko da, zapatua. Ohi bezala, 12:30ean emango dio hasiera ekimen honi Euskal Birusak plazan.

**URKO 69TAN EZETZ,
UZTAILAREN 20AN**

Artarra Mendi Taldeak urtero antolatzen duen 'Urko 69tan ezetz' proba uztailearen 20an egingo da. Parte hartu nahi duten guztiek 10:00etan eman beharko dute izena Patxi plazan, euro baten truke. Igoera erloju eta mugikor barik egin beharko da eta irabazleak izen ematean jasotako diru guztia jasoko du (argazkian, iazko irabazlea: Mari Carmen Zafra). Horrez gain, 'V. Artarra Lau Haizetara' argazki lehiaketa antolatu du taldeak. Parte hartu nahi duten bazkideek bi argazki bidali ahal izango dituzte gehienez, irailaren 17a baino lehen, helbide elektronikoa honetara: artarraie@euskal-net.net.

%50 igo da IGO kanpaina parte hartu duen lagunen kopurua

Udal Liburutegiak ezagutzera eman dituen datuen arabera, 75 pertsonak hartu dute parte aurtengo 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' kanpaina: 0 eta 10 urte bitarteko 19 lagun eta 10 urtetik gorako 56 lagun. 2012an, aldiz, 51k hartu zuten parte (9 eta 42 lagun, hurrenez hurren, aipatutako adin tartetan). IGO egitasmoak iraun duen bitartean -apirila amaieratik ekaina bukaerara arte-, euskarazko 464 liburu mailegatu ditu Liburutegiak, iaz baino 26 liburu gehiago. Horietatik 359 umeen liburuak izan dira eta 105, 10 urtetik gorakoentzako liburuak. Bestalde, Udal Liburutegiak hilero zozketatzen duen liburu-sortaren azken irabazlea, 4 urteko Aitzol Redondo izan da. Euskal Birusak antolatzen du Ermuan Irakurri, Gozatu eta Oparitu, Euskalzaleen Topaguneak bultzatuta, Udal Liburutegiaren laguntzarekin eta Udal Euskara Sailaren babesarekin. Horren helburua euskarazko liburuaren irakurzaletasuna bultzatzea eta aurtengo VII. edizioa izan da.

**5.000€ baino gehiago batu zituen paella erraldoiak**

Aurtengo Jardunaldi Gastronomikoen barruan egindako paella solidarioari esker 5.012,40 euro jaso ziren. Ekainaren 24an egindako ekitaldixean helarazi zitzaion Udal Gizarte Ongizate Sailari jasotako diru guztia eta horrek azaldu zuenez, Elikagaien Bankuak hilero laguntza behar duten familiei egiten dien banaketa indartzeko erabiliko da diru hori. Argazkian, ezkerretik eskumara: ekimenaren bultzatzaile Jesus González, Ermuko alkate Carlos Totorika, Lobiano Gastronomía Elkarte kide Jesús Portugal, Gizarte Ongizateko zinegotzi eskuduna den Fernando Lecumberri eta EMOEko Ibone Medina.

**25 lagun inguru San Martin laguntzaileen txangoan**

Ekainaren 22an burutu zen Euskal Birusak urtero antolatzen duen San Martin laguntzaileen txangoa. Aurten Getariako Balentziaga Museoa bisitatzeko aukera eskaini die Elkarrekin laguntzaileei. Taldetxoa 10:00etan irten zen Ermutik eta Museora bisita egin eta gero, Zumaiara abiatu zen eta bertako Alde Zaharreko jate-txe batean bazkaldu zuten. Bapo bazkaldu eta kantu batzuk egin eta gero, 19:00etan bueltatu ziren Ermura.



san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Ondo pasa Santixauetan!!



hanigan's
Irish Tavern

**Gosari, bazkari eta afariak
-eramateko prestatzen dugu-**

**Pintxoetan eta
garagardoetan aukera zabala.**

Astegunetan 7:00etan zabaltzen dugu.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etan.

Komentukua z/g · 943030527

WiFi

UZTAILAREN 24a, ASTEAZKENA

- **17:00:** Patxi plazan, Drogomenpekotasunaren Prebentzioko Udal Zerbitzuak MEZUA DUTEN MOTXILEN BANAKETA egingo du.
- **19:00:** 'Irlulitxa' musika-bandak alaituriko TXARANGEN AURKEZPENA eta ohiko KALEJIRA herriko kaleetan zehar.
- **22:00:** ROCK JAIALDIA Valdespinako parkean: Ficus txalapartariak, Dientes de luna, The Nekrobabies, Mala fortuna eta Quoadar taldeen eskutik.
- **23:00:** DANTZALDIA Orbe Kardinalaren plazan Pasarela orkestrarekin.



UZTAILAREN 25a, OSTEguna

- **4.00-6.00:** Pasarela orkestrak GAUPASA girotuko du.
- **7.00:** TXOKOLATE-JANA plazan.
- **7.30:** Plazako pilotalekuan BARRUS partidak izango dira.
- **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **12.00-14.00** eta **17.00-20.00:** UMEENTZAKO PARKEA San Martin plazan.
- **12.00:** Santiago Apostoluaren elizan MEZA izango da patroiaren omenez.
- **12.30:** HERRI-KIROLAK plazan. HARRIJASOTZAILEAK: Iñaki Perurena eta Urdax. AIZKOLARIAK: Bihurri eta Zelai II. IPARRALDEKO JOKOAK: Zelailuze. GAZTEEN ARTEKO TXAPELKETA: Zelai III, Zelai IV, Bihurri II eta Ureta.
- **12.30:** STTBO txarangaren eskutik KALEJIRA.
- **16.00:** San Pelaioko Bolatokian BOLO-PALMAko SANTIXAUAK 2013 SARIA.



- **17.00:** Aritzmendi pilotalekuan PROFESIONALEN ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK:

Apezetxea-Larrinaga / Gorka-CeCilio Mtz. de Irujo-Zabaleta / Ezkurdia-Zubieta.

- **19.00:** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA Ondalan konpartsaren eskutik.
- **20.00:** LARRAINDANTZA herrikoia Orbe Kardinalaren plazan.
- **20.30:** Orbe Kardinalaren plazan EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA.
- **22.00:** ROCK JAIALDIA parkean: Neurotic Hell,

Skakeitan, Rock&Road eta Red Blaze taldeen eskutik.

- **22.30:** Markeliñe taldeak 'Anomalías magnéticas' KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaio plazan.

- **23.00:** Orbe Kardinalaren plazan Esmeralda orkestraren DANTZALDIA.

ASTARLOAN
GOXO GOXO
Kafé & Deliss
Tfo.: 943174612

Menua, kaxolak, razioak, pintxoak... Plater konbinatuak 5€ tik aurrera!
6:30ean zabaltzen dugu!
Tel. 943 17 15 57 ERMUA

PINTXO BENDU

Sukei proyectos y reformas | nane moda | eva calzados | KRABI botaniqueria | Giroo

UZTAILAREN 26a, OSTIRALA

- **7.00:** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
 - **7.30:** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
 - **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
 - **11.30:** Santa Anako txosna gunean
- GAZTE EGUNA:**

- 11.00: Haurrentzako jolasak.
- 13:30: Harrera.
- 14.30: Herri bazkaria.
- 16.30: Karaokea eta bingoa.
- 17.00: Andrabanda feminista.
- 18.00: Olinpiadak
- 22.00: Katekesixe, Yaw eta Noraezean taldeen kontzertuak.

- 12.00-14.00 eta 17.00-20.00:

HAURRENTZAKO PARKEA San Martin plazan.

- **12.00:** NAGUSIEI OMENALDIA egingo zaie eta SARIAK entregatuko zaizkie Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.
- **13.00:** Alboka Musika Eskolako Bandak KONTZERTUA eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
- **14.00:** Aritzemendi Pilotalekuan Nagusien Etxeak HERRI BAZKARIA eskainiko die aiton-amona bazkideei.
- **18.00:** ESKU-PILOTA partidak izango dira Orbe Kardinalaren plazan:
Asier Berasaluze-Bengoetxea / Andreu-Aldape.

- **19.00:** Patxin eta Potxinek PAILAZO IKUSKIZUNA eskainiko du plazan.

- **19.00:** KALEJIRA Irulitxa musika-bandak alaituta.
- **19.00:** KALEJIRA Ermuko txarangen eskutik.

- **20.00:** LARRAINDANTZA Orbe Kardinalaren plazan.

- **22.00:** MUSIKA ELEKTRONIKOAREN JAIALDIA parkean: Alexander M., Javierski, Fey, David MK eta David Moleón.

- **22.30:** Scura taldeak 'Cavalfocs' SU KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaio kaletik hasita.

- **23.00:** Geiser Band orkestrak DANTZALDIA alaituko du Orbe Kardinalaren plazan.






UZTAILAREN 27a, LARUNBATA

- **7.00:** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7.30:** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **10.00-11.30:** Arroz banaketa egingo da plazan eta ondoren PAELLA LEHIAKETARI ekingo zaio, haur eta helduen kategorietan.
- **11.00:** Valdespinako Markesaren parkean SARDINA BANAKETA nahi duen guztiarentzat.
- **12.00-14.00** eta **17.00-20.00:** UMEENTZAKO PARKEA San Martin plazan.
- **12.30:** ERMUAN KANTUAN KALEJIRA plazan hasita.
- **12.30:** Frantziako Lous Berretes txarangarekin KALEJIRA.
- **14.00:** Paella lehiaketara aurkeztutako platerak DASTATUKO dira. Ondoren, ohiko HERRI BAZKARIA.
- **17.00:** Nazio mailako gazteentzako 2013ko SANTIXAUAK TXIRRINDULARITZA PROBA. San Pelaio iturrian irteera eta Betiondon helmuga.



- **18.00:** ERROMERIA Orbe Kardinalaren plazan, Lotxo taldeak alaituta.
- **19.00:** KALEJIRA Lous Berretes txarangaren eskutik.
- **19.00:** Paella lehiaketaren SARI-BANAKETA egingo da plazan.
- **19.15:** Orbe Kardinalaren plazan AURRESKU ETA LARRAINDANTZA nahi duen guztientzat.
- **20.00:** ERROMERIA Lotxo taldeak alaituta.
- **22.00:** Hesian taldearen KONTZERTUA plazan.
- **23.30:** Irulitxa musika-bandaren ONGI ETORRIA Orbe Kardinalaren plazan.
- **00.00:** SUZIRIAK Ongaraiako parkean. Ondoren KALEJIRA Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan jaiei agurra emango dien AGUR JAUNAK.
- **00.30:** JAIEN AMAIERA: Fórmula V taldeak kontzertua eskainiko du plazan.



Lehen gazte-eguna ospatuko da Ermuan uztailearen 26an

Gazte Asanbladak antolatutako ekimenak goizean goiz hasi eta gauera arte luzatuko dira, Santa Anako parkean. Giro alternatibo eta euskalduna sortzea da helburua eta tartean, txosna, haurrentzako jolasak, herri bazkaria, bingoa eta karaoke lehiaketak egingo dira. Egunari amaiera emateko Katekesixe, Yaw eta Noraezean taldeek kontzertua eskainiko dute.

16 eta 25 urte bitarteko 20 neska mutilek osatzen dute Gazte Asanblada eta duela 4 hilabete inguru hasi ziren Ermuko I. Gazte Eguna antolatzeke lanetan. Iazko arazoak ikusita, aurten Gazte Asanbladak ez zuen txosnarik ipintzeko asmorik, baina "bat-batean" Udalaren mezu elektronikoa jaso zuten, euren asmoen berri izan nahi baitzuten. "Egia esan, ez genuen pentsatuta herrian jada txosna-gunea lortzea -diote gazte hauek-. Baina ustekabeen Udalak or-

denantza aldatu eta baldintzak leundu ditu eta gu segituan hasi ginen lanean, marxoa inguruan".

Azken hilabeteotako lanari esker, goizetik gauera arteko egitaraua osatu dute, ez zutelako nahi jendea "goizean lotan egon eta arratsalde-gau partean bakarrik irtetea", eta adin guztietarako ekitaldiak izango dituzte, umeentzako jolasekin hasiko baitira eta herri bazkarian helduagoak ere parte hartzea espero dutelako, "denontzako giroa sortuz".

Izan ere, Gazte egunaren helburua giroarekin lotuta dago: "Giro alternatibo eta euskalduna sortzea da gure helburua. Betidanik tabernak eta DJak izan ditugu eta lagun asko jaietan lokaletan sartuta egoten da. Guk elkar-giroa sortu nahi dugu".

Etekin ekonomikoa

Hasiera batean, jaietako 4 egunetan txosna-gunea zabalik izatea pentsatu zuten, baina "diru aldetik ez zela ondo irtengo ikusi" eta egun bakarra egitea erabaki zuten. "Aurtengoa nola doan ikusita, datorren urtean 4



egunetara zabaltzea balartuko dugu", diote. Eta hori lortzeko, herriko elkarteak ere horretan inplikatzeko ezinbestekotzat jotzen dute. "Batziek txosna ipintzeko asmoa izan dute aurten, baina esan diegunean aurten ez dela etekin ekonomikorik egongo eta ateratzen dugun dirua datorren urtekoa antolatzeke izango dela, atzera egin dute", argitzen du Gazte Asanbladak. Irailetik aurrera, baina, herriko elkarteekin lanean hasi eta 2014rako txosna-gune handiagoa sortzeko asmoa dute. Hori baita finean euren nahia eta ez daude batera ados azkenaldian 'Ermua Opina' bezalako sare sozialetan euren inguruan komentatzen ari den guztiarekin. "Jendeari asko gustatzen zaio jakin barik hitz

egitea. Komentatu izan dute gazteek ez gaudela jaietan lan egiteko prest eta horregatik zabalduko dugula bakarrik egun bat -salatzen dute-. Ez da egia. Diru kontua dela azpimarratu nahi dugu. Eguna ondo prestatu eta ondo irtetea nahi dugu, ez desastre hutsa izatea".

Gazte Asanbladaren mugimendua 2006an sortu zuen Ermuko beste gazte talde batek. Proiektuak urte batzuk igaro ditu erdi baztertua eta duela denboratxo bat, lanari ekin diote beste gazte batzuek. Gazte Eguna izango da antolatzen duten lehen ekimena baina, irailetik aurrera eta, oraindik zehaztasun asko eman ezin duten arren, ikastaroak eta mendi-irteerak antolatzeke asmoa dute.

Dorleta Vidal

Ermuko GAZTE eguna 26

Egitaraua

- 11:30 umeentzako jolasak
- 13:30 Gazte Asanbladaren harrera eta brindisa
- 14:30 Herri bazkaria
- 16:30 Karnoken eta bingo partida
- 17:30 Andabanda
- 18:30 Olinpiadak

22:00 kontzertuak

Txosna egun osoan zehar!!

Bazkariako etiketak, lotzeak eta Txalaparta tubercion

ERMUKO GAZTE ASANBLADA

mari asun

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 beheak · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

Iker Elustondo, Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketako irabazlea:

“Arrebarekin duoa osatu nahiko nuke etorkizunean”

15 urte ditu Ikerrek eta dagoeneko hainbat sari jaso ditu kantu txapelketa ezberdinetan. Azken hilabeteotan, Euskal Herriko Haur-Gaztetxoan Kantu Txapelketako irabazle eta Bizkaiko txapel-dunorde izan da. Bakarka, Bizkaiko 3. izan zen duela lauzpabost urte eta arrebarekin 2. postua lortu zuen 2011n: Irabaztera ohituta dago.

- *Bide luzea egin duzu Euskal Herriko finalera heltzeko?*

Beno, fase ezberdinak gainditu behar dira. Bizkaiko finalera heltzeko fase batzuk daude eta hortik Euskal Herriko finalera joateko 4 kantari-rik onenak hautatzen dituzte.

- *11 eta 15 urte bitarteko kategorian irabazi duzu, ekainaren 16an burututako finalean. Zenbat kantari egon zineten bertan?*

Guztira 28, bakarlari, bikote eta taldeak kontuan hartuta.

- *Gurasoak zu ikustera joan ziren?*

Bai, Burlatan izan zen finala eta autobusen joan ginen denok. Eurak ere asko poztu ziren.

- *Lehiaketetan, beste abeslariekin harremanik izaten duzu?*

Bai, ni ondo pasatzera jotzen naiz. Batzuk lehiatzera doaz eta taldetik aldentzen dira, baina ni ez.

- *Zein abestirekin irabazi duzu? Entzuteko aukerarik ba al dago?*

‘Eskerrik asko’ deitutako abestiarekin hartu dut parte lehiaketan. Nik sortutakoa da eta bertan gitarra jotzen dut. Entzun nahi duenak, Youtuben ‘Iker Elustondo eskerrik asko’ idatzi baino ez du egin behar.

- *Abestia sortu, kantatu, gitarra jo... Denetik egiten duzu!*

Bai (barre). Musika Araban gitarra jotzen ikasten dihardut. Abestu, berriz, etxean egiten dut, Leire arrebarekin. Berak ere orain dela urte batzuk irabazi zuen Haur Kantari Txapelketa, bikoteka.



- *Datorren urtean, 16 urte-tik gorakoan kategorian parte hartu beharko duzu. Prest?*

Bai, Leirerekin joango naiz. Duela urte pare bat 2. izan ginen Euskal Herriko txapelketan eta orduetik aurrera hainbatetan abestu izan dugu elkarrekin.

- *Adibidez?*

Aurtengo Vertigorocken. Nik gitarra eta berak pianoa jotzen du; abestu elkarrekin edo txandaka egiten dugu.

- *Betidanik abesten duzu?*

6 edo 8 urte nituenetik. Leirek animatu ninduen, baina niri ere asko gustatzen zitzaidan. Atletismo eta futbolearen aritu nintzen aurretik, baina orain musikan bakarrik dihardut.

- *Zeintzuk dira musikari lotuta dituzun etorkizunerako erronkak?*

Musika ikasketak burutu eta arrebarekin duoa egin nahiko nuke. Ohituta gaude elkarrekin abesten, estilo bera daukagu eta taldeak ez zaizkit larregi gustatzen.

Dorleta Vidal



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean



**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!

 Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Zure publizitatea...

drogeteniturri

aldizkarian

943179350 • 688 632876
Erdikokale 2, 1 • drogeten@gmail.com

MARIBEL LÓPEZ

- **Nola oroitzen duzu gaztaroa?**

Gaztetan jostea eta brodatzea atsegin nuen, eta asteburuetan juergan irteten nintzen.

- **Ikasketarik?**

Lehen Hezkuntzan oinarrizkoena ikasi nuen, eta ez nuen ikasketak jarraitzeko aukerarik izan. Behar bada, aukera izan banu, informatika ikasiko nuke.

- **Noiz hasi zinen lanean?**

Izebaren negozioan 13 urte nituela hasi nintzen, eta 18 urterekin neureganatu nuen liburu-denda.

- **Zein ordutan hasten duzu eguna?**

Zazpiak laurden gutxitan itzartzen naiz, eta zortzi eta erdietan zabaltzen dut denda.

- **Zer da zure lanaz gehien estimatzen duzuna? Eta gutxien?**

Publikoarekin kontaktua da gehien estimatzen dudana, eta gutxien ordu asko sartzen ditudala.

- **40 urteko historiari eusteko giltza zein da?**

Lan asko egitea, eta egiten duzun hori atsegin izatea.

- **Zer da gehien saltzen dena?**

Erretirodunen egoitzaren ondoko dendan diru-zorroak saltzen ziren gehien. Egun, liburuak, motxilak, eta eskolako materialak dira salduenak. Dena dela, krisiak salmentak asko jaitsi ditu.

- **Nola hartu aurre krisiari?**



52 urte ditu eta 40 urte daramatza 'Maribel' deritzon liburu-dendan. Erretirodunen egoitzaren ondoan zegoen kokaturik denda hasieran, bertan 16 urte eman zituen. Eta duela 24 urte lekualdatu zen San Martinera. Carlos Ganuzarekin ezkondu dago, eta bi seme-alaba dituzte: Iker eta Silvia.

Zerbitzua eskainiz, bezeroa behar bezala tratatuz, eta bezeroen eskariei erantzutean dago gakoa. Gainera, superfizien handien erronkari ere egin behar diogu aurre, kalte handia egiten digutelako.

- **Liburu elektronikoa...**

Ez ditut bat ere gogoko, jendearekiko kontaktua galtzen delako. Liburu horiek kargatzea eskaini didate, baina, paperezko liburuaren aldekoa naiz.

- **Zer liburu gomendatuko zenuke?**

'La sonrisa etrusca', José Luis Sampedrorena. Liburu tristea eta alaia da era berean.

- **Biziorik?**

Txokolatea.

- **Musika estilo bat ...**

Denetarik aditzen dut, nire semeak konposatutakoa barne. Euren kontzertuetara joatea gustatzen zait!

- **Oporretan nora?**

Seme-alabekin Castro Urdialesera joatea gustatuko litzaidake.

- **Hobiren bat?**

Ez dut denbora libre askorik, baina, oinez ibiltzea, edo gurutze-puntua egitea atsegin dut.

- **Ametsik?**

Nire seme-alabak ondo eta zentratu ikustearekin konformatzen naiz. Ea lkerre lana aurkitzen duen!

- **Gustuko duzun kolorea...**

Morea. Arropan beltza erabiltzen dut gehienetan, eta udaran zuriarekin animatzen naiz batzuetan.

- **Zein da eguneko unerik gozoena?**

Afal ordua, laurak elkartzean.

- **Oroitzapenik?**

Iker eta Silvia jaio zirenean, jaunartzea egin zutenean...

- **Jatun ona al zara?**

Bai, denetarik jaten dut izokina eta erraia salbu.

- **Zerk hunkitzen zaitu?**

Gehien bat nire seme-alabekin erlazionaturiko kontuek; dantzatzen edo kantatzen dutenean.

- **Zer da urduritzen zaitue-na?**

Jende aurrean berba egitea.

- **Nola definituko zenuke zure burua?**

Lotsatia naizela esango nuke.

- **Zer falta da Ermuari?**

Berde guneak eta gazte guztiak elkartzeko lekuren bat.

- **Zer eskatzen diozu etorkizunari?**

Lana herritarrentzat, bereziki nire seme-alabentzat.

Leire Elustondo



**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



**SAGARDUI
poltsak**

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



D. ARRAL 97 S.L.
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
arral@arral97.com
www.arral97.com

Ardo banatzailea:
Luis Cañas
Cantosán Verdejo
Viña 65 Verdejo
Amaren
Añada Real
Cava Oriol Rosell
Nitida
Montepinos

Eta kitto...

Urtebete igaro da: Er-muko errepideetatik manifestazioan ibili gi-nenetik urtebete, 'po-lolaren' bertsiotik urtebete, Bil-bon txaranga egon zenetik urte-bete, zentro kulturelek pankarta eramán zutenetik urtebete, ka-mioitxoa eramaten zuen umea-ren argazkitik urtebete, bizkai-tarron etxearen ate aurrean biz-kaieraz egindako hitzalditik urte-bete, paperezko kamioek kalea estali zutenetik urtebete, auto-pistaren ordainlekuaren aurrean eseri zirenetik urte bete.

Hori izan zen Aldundiak hartu-tako erabakiei 'herri' batek aurre egin zien azkeneko aldia. Eta ha-rez geroztik zer? Zer gertatu

da? Herriaren partaidetza eta mobilizazioa eskatu eta gero Udalak ez digu egoeraren berri-rik eman, ondorengo pausoen berri, ikuspuntu politikoaren ber-ri... Zer dihardute hareatza po-litikoan? Arazo bat gizarteak be-rak ez badu bere egiten zurrun-bilo politikoan murgiltzera egiten du.

Bizkaiko aurrekontuak onartu-rik daude, Bizkaiko Foru Aldun-diak saskibaloiarekin 'bere' es-kuzabaltasuna erakutsi eta gero, bere eskua gure aurpegian jarri du "metroa eta gero hurrengoak zarete" esanez. Eta bitartean zer? Hiru mobilizazio eta gero bukatu al da? Zer gertatuko da Hiri Antolakuntzarako Plan Na-



Ivan Mesonero

gusian saihebidia egitearen menpe dauden proiektu propo-samenekin? Egingo al dira? Zer gertatu da kontaktu politikoekin eta arazoa gutxitzeko proposa-menekin? Bitartean, Oterre ba-soko lur biltokian bi diputazioak ingurugiroaren errestraurazioa nork egin behar duen zehazteko.

Galdera gehiegi eta erantzun gutxi, momentuz. Bitartean ara-zoa pairatzen jarraitzen dugu. Baina azken galdera bat, gure esku dagoen guztia egin al du-gu?

Gizarteak ez badu arazo bat bere egiten, zurrunbilo politikoan murgiltzera egiten du

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

ILEAPAINDEGIA
Tzaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

MUGA

K

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elekratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**



Uztailaren 12an
Zorionak Paula!
Ondo pasa zure 6.
urtebetetzean.
Musu handi bat
etxekoan partez.



Uztailaren 23an
Zorionak Ixone zure
9. urtebetetzean.
Ondo pasa eta musu
handi bat Gaizka,
aita eta amaren
partez. Segi horrela
txapelduna!!!



Abuztuaren 3an.
Zorionak Aner, jada
3 urte!!! Muxu
handi bat etxekoan
partez.



Uztailaren 27an
Zorionak Iker zure
8. urtebetetzean.
Ondo pasa guraso,
osaba-izeko eta
aittitta-amamen
partez. Muxu
handi-handi bat.



Uztailaren 23an
Zorionak etorkizu-
neko Athletic-eko
harrobiko jokala-
riari! Maite zaitu-
gu, bihotza!



Uztailaren 26an
Zorionak Manex!!
Apurto itsulapikoa
zure lagunak
txutxeen zain
daude-eta!!

Drogeteniturrri aldizkaria etxean
DOAN jaso nahi duzu?

943 17 93 50
drogeten@gmail.com

Bidali zure zorion-agurrak
drogeten@gmail.com helbidera.

Hurrengo zenbakirako azken eguna:

IRAILAREN
18a



TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK

Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

PRO



-ARRAINDEGIA
-ITSASKIAK
-ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA



GOIENKALE Z/G
ERMUA
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7
ARRASATE
Tel. 943 770 598

**MALLABIA
1967**

Argazki hau 1967 inguruan aterata dago Eibarren, San Juanetan.

Bertan agertzen dira:
Rikardo Altube,
Felipe Azagirre,
Luisiano Urrutxurtu
eta Vicente Amesti.

**ERMUA
1962**

Ezkerretik hasita Jose Bouzo, Maritxu Gerenabarrena, Arrate Amas, Jose Mari Crespán, Tomás Gorrotxategi, Marivi Mallagarai, Begoña Berrizbeitia eta Angel Fernández. Ezkonduta batzuk, ezkontzekotan besteak... baina Santixauetan kuadrilan egiten zituzten elkarren arteko bazkari eta afariak.

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

Quetzal berria!!
[arropa, bitxiak, opariak...]
ekainetik aurrera
Eibarren ere

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500

Laster ipiniko da martxan Ermuan Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendua, TAO. 45 aparkaleku egongo dira, 3 gune ezberdinetan banatuta: Probaleku inguruan, Karabixa eta Diputazio kaleetan. Urdinez margotutako aparkalekuetan kotxea laga, parkimetroan tiketa atera eta ordubete kotxea leku berean lagatzeko aukera egongo da. Hortik aurrera, 50 eta 100 euro bitarteko isuna jasoko da.

Badakizu nola funtzionatuko duen TAO-k?



Egia esan ez dakit nola funtzionatuko duen, baina entzun dudanagatik sistema hori gaizki iruditzen zait. Txandakako aparkalekuak badaude jada Valdespinako parke azpian! Zubiaurre 12ak arte zabalik egoten zen eta egin behar zenituen errekaduak egiteko aukera zegoen. Gainera jendeak ez zuen kotxea bertan denbora luzez lagatzen.

Fausti Sánchez, 68 urte



Bai, uste dut prentsan irakurri nuela nola funtzionatuko duen: ordu bete doan eta 10 minutu pasatzen bazara, isuna. Laburbilduta, diru-bilketa egiteko tresna baino ez da izango. Ez dut uste inori onurak ekarriko dizkionik. Merkatarietzako mesedegarriagoa litzateke Zubiaurre lehen bezala zabaltzea eta udaltzainek batzuetan ez ikusiarena egitea.

José Antonio Santiago, 44 urte



Lurreko marra urdinak margotuta ikusi ditut eta kalean zerbait komentatu didate, baina ez dakit oso ondo nola funtzionatuko duen. Zamaun guneak ipintzea beharbada erabaki egokia izan daiteke, baina TAOren atzean dirua bildu nahia bakarrik dago. Udaltzainek horrelako gauzak zaindu baino ez dute egiten eta, behar dituzunean, ez daude zu laguntzeko prest.

Timi Vecino, 63 urte



Uste dut ordu bete doan eta hortik aurrera zerbait ordaindu beharko dela. Merkatari eta Ostalariaren Elkarteak bilera batean aipatu ziguten TAOren kontu hori, Zubiaurren itxierari irtenbidea emateko. Merkatarioi lagunduko digu eta aldi berean, bertan bizi garenoi, aparkalekuak kenduko dizkigute. Alde onak eta txarrak ditu.

Amaia Arriaga, 53 urte

- Zer dela eta ari dira borrokatzen?
Hor atzean aparkaleku mordoia dago!



Tasio eta Sabino

- Bai, baina horiek TAOkoak dira eta bihar goizean kotxea lekuz aldatzeko jaiki behar dira: Kotxea kendu edo isuna ordaindu!

UDAKO ZINEA

Hilak 5:
Un amigo para Frank

Hilak 7:
Las aventuras de Tadeo Jones.

Hilak 12:
La vida de Pi (DVD)

Hilak 14:
The Host (la Huesped)

Hilak 19:
El arte de pasar de todo

Hilak 21:
Ace Age 4



Hilak 26:
Aguila Roja

Hilak 28:
Madagascar 3
Emanaldi guztiak
22:00etan hasiko dira,
Orbe Kardinalaren
plazan. Euria badago,
emanaldia elizako
arkupetan izango da.

Patxi López

Mallebiko Andra Mari jaixek 2013


ABUZTUAK 11, domekie
12:00 Euskal Herriko nesken gomazko paleta zirkuituko finalurrekuek:
Mallabia I Kirol Etxean.

ABUZTUAK 14, eguztena, UMIEN EGUNE
11:30 Umien txupinazue botako dau **Alkate txikixek.**
12:00-14:00 /16:00-18:00 Umeentzako parke berezixe: puzgarriak, jumping...
parkien.
18:00 Bits festa parkien.
19:00 Txupinazoa Gazte Alai Dantza taldian eskutik.
19:30-21:00 Txokolatada (Antolatzailea, Izar Gorri Elkarte) eta erromerixie
Luhartz taldiakin plazan.
21:00 pilota partiduek Mallabia I Kirol Etxean.
1) Euskal Herriko nesken gomazko paleta zirkuitua finalak
2) Elezkano-Larunbe / Rico-Aretxabaleta
3)Bengoetxea-Beroiz / Olaizola II-Zabala
23:30 Luhartz taldearekin erromerixie plazan.



ABUZTUAK 15, eguna, ANDRA MARI eguna,
11:00 Meza Nagusixe.
12:00 Kalejira plazatik frontoie, bertsolarixek (Beñat Ugartetxea eta
Onintza Enbeita) eta Gazte Alai dantza taldiakin. Ondoren hauen emanaldixe
frontoian.
17:30 Mallabiko XXIII. Harri-jasotze saria Harri Txikixe.
17:30 Tute, mus eta briska txapelketa tabernetan.
23:00 Oskorri: 'Gabriel Aresti bizsitan' parkean.

ABUZTUAK 16, barikue,
SAN ROKE EGUNA- NAGUSI eta KOADRILEN EGUNE
11:00 XIV. PAELLA ETA II. MARMITAKO LEHIAKETArako izen emotie.
12:00 Meza Nagusixe.
14:00 Jubilatuen bazkarixe frontoien. Bazkal ostien Mallabiko trikitilariak eta
bertsolarixek (Mañukorta eta Juan Mari Areitio) egongo dira.
17:30 Taldien arteko jolasak .
20:00 Mallabitar guztixentzako sagardue debalde eta txerri errie.
20:30 Erromerixie plazan.



XXV. IDI PROBA TXAPELKETA ABUZTUAK 23,24,25 eta 26an
Izena ematea: abuztuaren 4an (igandea) eguerdiko 12:00etan Udaletxean



solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpet
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoiaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PRODUCTOS
SELECCIONADOS

URDAITEGIA - CHARCUTERIA

MAYTE

Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12


ERMUA

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



DEKORAZIOA
OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILEA

dekorazio estudioa

trastévere
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA

FONTANERIA
B. DE DIOS

Baimendutako instalatzaileak
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta
petrolio produktuak

Gipuzkoa etorb. 48 - behea Komunetako altzariak
Tel/Fax. 943 17 01 09 eta osagarriak
E-maila: bdedios@euskalnet.net

PINTURAK

J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

ELEKTRIZITATEA

BETA

**ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

ITURGINTZA

Igeltserotza - Iturgintza
Errekalde

Esteban Goikoetxea
Errekalde baserria, 1
48260 ERMUA Bizkaia
Tel: 662 51 42 68
errekalde.gm@gmail.com

PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS **ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

AROTEGIA

iraner
Puertas EDER Carpintería

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdindegiko artikulak salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 • iranercb@gmail.com

TAILER MEKANIKOA

AUTO-REPARACIONES
AREITIO, S.L.

- Kamioia
- Furgoneta
- 4 x 4
- Makinaria

Tel.: 943 17 51 00
areitio@areitiomotor.com
www.areitiomotor.com

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

Santixau jai egunetan Euskal Birusak **TXIKURIXA** zabalduko du aurreko urteetako leku berean. Egun eta gaueko txosna jartzea dugu helburu, adin tarte guztientzako zabalik egongo dena. Hori dela eta, bazkide eta herritar guztioi laguntzeko aukera eman nahi dizuegu:

- Txandak eginez
- Patata-tortilak ekarriz...
- Zuen koadrilako 'erronda'n kontuan hartuz...

Santixauetan
EUSKARA
MINGAINEAN



Euskal Birusa Elkartea

Lagundu nahi baduzu,
deitu 688632874 telefonora

**SOR DEZAGUN
ERMUAN JAI-GIRO
EUSKALDUNA!!**

**Euskal Biruseko kamisetak
Txikurixan salgai!!**



Helduentzat: 12€



Umeentzat: 10€